

Jatorri-ziurtagiri digitalak (eCO). Zein da euren funtzioa

Data: Otsailak 18

Ordutegia: 9:00-11:00

Iraupena: 2 ordu

Lekua: Gipuzkoa Bazkundera – Tolosa Etorbidea 75 - 20018 Donostia-San Sebastián



IZEN-EMATEA

Nazioarteko logistikan, enpresen esportazio departamentuetako tekniko eta administrari edo nazioarteko operazioetan jarduten diren beste edozein agenteei zuzendutako tailerra.

Egun, nazioarteko merkataritzan erabiltzen diren DUA elektronikoa, albaranak, faktura elektronikoa edo garraio agirien datu-truke elektronikoen (EDI) eragin zuzena dute enpresen eguneroko operatiban.

Digitalki sortutako jatorri-ziurtagirien erabilpenak onura ugari ekar diezaioteko enpresa esportatzaileari: Azkartasuna, kudeaketa gastuen murrizketa, segurtasuna eta bizkortasuna eta malgutasuna agirien kudeaketan.

Aurtengo urtetik aurrera Gipuzkoako enpresek digitalki sortutako jatorri-ziurtagiriak (eCO) eska ditzakete, aurretik Europako erdialde eta iparraldeko herrialdeetako enpresek egiten ari diren bezala. Dagoeneko milaka agiri jaulki dira digitalki eta gero eta onartuagoak dira operadore, banku eta aduanetan.

Erabilpen berri hauek azaltzeko eta merkantzien jatorria ezartzeko oinarritzko irizpideak berrikusteko ondorengo jardunaldi informatiboa proposatzen dizuegu. Ekitaldi hau, enpresen esportazio departamentuetako tekniko eta administrariari dago zuzenduta, baita nazioarteko logistikan aritzen diren enpresei. Finean, nazioarteko operazioen inguruan lanean jarduten duten edozein agenteri zuzenduta dago.

Egitaraua

9:00 Parte-hartzaileei harrera

9:10 Aurkezpena

9:15 Merkantzien jatorria

- Jatorriaren kontzeptua
- Merkantziaren jatorria ezartzeko irizpideak

Cámara de Gipuzkoa

- • Jatorri motak
- • Jatorri arauak
- • jatorriaren frogak

10:00 www.docuexport.com plataforma

- • Jatorri-ziurtagiriak
- • Esportazio agirien legeztatze prozesua
- • ATA koadernoen jaulkipena

10:20 Jatorri-ziurtagiri digitalak

- • Zer da Jatorri-ziurtagiri (eCO) bat?
- • Baliotasuna eta egiaztapena
- • Jatorri-ziurtagiri digitalaren onurak
- • Nola eskuratu?

10:45 Galde-eskeak

11:00 Jardunaldi amaiera

Informazioa

avaqueriza@camaragipuzkoa.com

